

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2005EKO OTSAILAREN HOGEITALAUAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIZKO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaiako hirian, bi mila eta bostgarren urteko otsailaren hogeitalauan, arratsaldeko zortzi terdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da ohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU Jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE Anderea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA Jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA Jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN Jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO Anderea.
Cristina FORCADA UNANUE Anderea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.-AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA (2004-11-18; 2004-11-25 ETA 2004-12-23).

Alkate-Lehendakari andereak bilera eratutzat eman ondoren, gorporazio kideren batek onarpenera aurkezturiko akteri buruz oharpenik egin nahi lukeen galdetzen du.

Paloma Heredero Negredo PSOE-ko zinegotziak zera adierazten du aktan jasoan gera dadila azaroako bileretara etzela etorri baina aurrez ezin etorria zuritu zuela.

Oharpen gehiagorik adierazten ez denez, bozketa eginik, gorporaziokideen aho batasunean, onarpenera aurkezturiko 2.004-11-18; 2004-11-25 eta 2004-12-23ko aktak onartzen dira.

2.- ORDENANTZAK: LANAK EGITEKO LAGUNGARRI DIREN EGITUREN INSTALAZIOAK;(ANDAMIOAK;GARABIAK ETA BESTE EDOZEIN MOTATAKOAK), BIDE PUBLIKOAN JARTZEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN HASERAKO ONARPENA.

Alkateak zera dio, Ordenantza honen helburua herrian egiten diren lanetan,oinarri bat edukiaz, bereziki hiritarren segurtasuna bermatzea dela. Gaur egun andamioak, sareak, oinezkoen pasabideak ..., jartzen dira, baina askotan ez dira behar bezala ipintzen. Ez dute nahiko tinkotasunik, sareak ere halako moduan etbr...

Inguruko herrietan dauden ordenantzak aztertu eta gurea landu dugu. Hirigintz Batzordean ere aztertu zen. Beraz besterik gabe.

IZUSTARRI taldeko Josebak Ordenantza honek lur zoru publikoa okupatzeagatik kobratzen diren tasekin zerikusirik baduen galdetzen du.

EAJ-k ezetz erantzuten dio. Lur zoru publikoa okupatzeagatik bidezko den tasa ordaindu behar dela edonola ere, baina Ordenantza honek arautzen duena lanak segurtasunez burutu daitezen erabili beharreko materialaren ukan beharrak.

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 E.A.J, 1 IZUSTARRI, 2 E.A,2 PSOE eta 1 EB/IU)

Aldeko botuak: 11.

ERABAKI DA

1.- LANAK EGITEKO LAGUNGARRI DIREN EGITUREN INSTALAZIOAK;(ANDAMIOAK;GARABIAK ETA BESTE EDOZEIN MOTATAKOAK), BIDE PUBLIKOAN JARTZEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA haserako izaeraz onartzea.

2.- Gutxieneko 30 egunetako jendaurreko agerraldi epe bat zabaldu eta interesatuari audientzia eman, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta murtziloak aurkez daitezen helburuaz.

3.- Erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz behin betiko onartutzat hartuko da erabaki hau.

3.-ZUMAIAKO HILERRIKO PANTEOIEN TITULARTASUN EGUNERAKETA.

Zerbitzu Batzordeko Lehendakariak Hilerriko Panteoien titulartasun eguneraketari orain bi urte eman zitzaiola hasera adierazten du, Udal Erreglamendua onartuaz. Ondorengo urratsa enpresa bat kontratatzea izan zen HARRESPIL S.L zeinak Udalaren laguntzarekin lana amaitzea lortu duen.

Bereziki Maite Ibarra Gorostola Udal langileari eskerrak luzatu nahi dizkiogu lan honetan eskaini duen lankidetzaz eta egin dituen saiakera bereziak herritarrak prozesuan parte har zezaten.

Haziendako Batzordeburuak zera gaineratzen du, aspaldidanik egin nahi genuen eguneraketa dela hau. Hiru egoera ezberdinen aurrea geunden: panteoi berriak 50 urterako emakidan esleituak, panteoi zaharren eskubidedunak beraien eskubideak jabetzan zituztela mantentzen zutenak eta nitxoak 15 urterako emakidan .

Lan honen bidez egoera guztiak berdintzea edo hobeki esanda panteoi zaharren egoera erregularizatzea nahi genuke.

Amaieran panteoi zaharren titularren eskubidedun guztieri 50 urterako emakida onartuaz TITULUA luzatuko zaie.

Ondoren Idazkariaren txostena irakurtzen da:

ZUMAIAKO UDAL HILERRIETAKO PANTEOIEN TITULARTASUN EGUNERAKETA
--

AURREKARIAK

1.- Zumaiako Udal Hilerriko Erregimen eta Funtzionamenduaren ERREGLAMENDUA 2.003ko apirilak 29ko datuz GAO-ean argitaratu eta indarrean sartu zen.

2.- Erreglamendu honetan oinarriturik Panteoien Titulartasunaren eguneraketa prozesuari hasera eman zitzaion.

3.- Lan hori egiteko HARRESPIL enpresaren zerbitzuak kontratu ziren. (Onartu zen aurrekontua 2.003-06-16koa 10.405,20 €koa zen. Panteoiko 30 € + BEZ %16. Guztira 299 Panteoien eguneraketa aurrikusten zen.).

4.- INTERESATUERI BI ALDIZ OHARTARAZPENAK luzatu zitzaizkien (Titularrei gutun pertsonal bidez eta prentsan aurrez ohar orokorra argitaratuaz) eta enpresarekin EMAITZEN BALORAZIOARI BURUZKO BESTE BI BILERA egin ziren.

5.- Oikiako Hilerrian arazo bat nabarmendu zen: Panteoien titularrak lurraren jabe zirela mantentzen zuten eta Udalaren aurrean ez zeukatela beraien eskubideak eguneratu beharrik aditzera ematen zuten.

6.- Enpresak bere lana amaitutzat ematen du eta Udalari agiri hauek entregatzen dizkio:

.- Eguneraketa eskatu duen bakoitzaren eskaera orria behar bezala beteta, sinatuta eta dagokion agiriak erantsita.

.- CD bat papelean degoen informazio guzti hori jasoaz eta panteoi bakoitzaren argazkiak erantsiaz.

7.- Udalak ofizioz ahalik eta panteoi gutxien eguneratu gabe gelditzeko helburuarekin azken saiakera bat jartzen du habian batez ere Okiako Hilerriari zuzendua nahiko emaitza onak izan dituelarik.

8.- PANTEOIEN ESKUBIDE EGUNERAKETA datu hauek adierazten ditu:

*Panteoien Kopurua: 281 (Arritokieta 215, Oikia 46 eta Artadi 20)

*Eguneratuak: 272 (Arritokieta 211, Oikia 43 eta Artadi 20)

* Eguneratu gabe: 9 (Arritokieta 4, Oikia 3)

• Oharrak: Oikia eguneratzeko bost falta dira:

A) Eguneraketa ukatzen dutenak: O2 Lizarraga Baserria eta O7 Lore Baserria.

B) Jakinarazita daude baina ez dute eskaerarik aurkezten: O9 Urtiaberri,

9.- ERABAKITA GELDITU ZEN:

.-Titulartasuna pertsonalizatu nahi ez zuten erakundeak (Parrokia, Artadiko eliza eta Monjak (Maria eta Jose) Pertsona fisiko baten izenean erregistratu ordezkari erakundearen izena mantendu eta erakundearen CIF-a adieraztearekin nahikoa zela.

.- Panteoiaren bi kontzesiodunak erregistratzea panteoi zenbaki berdinarekin, baina gero ezberdintzeko letra bat jarriaz. Adibidez: A001-a eta A001-b.

OINARRI JURIDIKOAK

1.- 1372/1986, Errege Dekretua, Toki entitateen ondasunen erreglamendua onartzen duena. Dekretu honek 44. Ataletik aurrera, Toki entitateek, beraien ondasunekiko dituzten eskubideak zerrendatzen ditu.

Erreglamenduak zera dio, ustez Udalen jabetzakoak diren ondasunen egoera ikertzeko eskumena dutela, titularitatea noran den argitzeko.

Ikerketa ofizioz edo interesatuak eskaturik has daiteke. Prozedura hau jarraikiz:

- A- Jendaurreko agerraldi epea: Ondasuna identifikatzen lagunduko duten ezaugarrien berri emanez.
- B- Interesatuak idatziz alegatu dezakete eta bidezko diren agiriak aurkeztu.
- C- Frogaldia. Ondorengo elementuak onartuko dira: Agiri publiko judizial, notarial eta administratiboak. Perito baten diktamena eta lekukoen aitormena.
- D- Aurreko guztiaren onodren Udalaren zerbitzuel proposamen bat luzatuko dute eta 10 eguneko epean jendaurrean jarriko da.
- E- Udalak espedientea ebatziko du.

2.- 7/1985-eko, apirilak 2-ko Toki eraentza arautzen duen oinarrien legea. Eskumena. Udal hilerrietako panteoien titulartasun eguneraketa zerrenda onartzeko eta kontzetsio eskubideak emateko 50 urtekoak (Plenoa). 22,2-n atala.

3.- Zumaiako Udal hilerriko erregimen eta funtzionamenduaren erreglamendua. Besteak beste, 15, 19 eta 27 .atalak Hilobi erabilera eskubidearen kontzesioa eta erregistroa eta iraungipeneko espediente admiistratiboa.

ONDORIOAK

1.- Titulartasunaren eguneraketa dokumentuan zintzilik gelditu diren panteoi eskubideak ebatzi:

Arritokietan 4 eta Oikian 3

Oikia: Ez bada interesaturik azaltzen Udalaren esku geldituko direla adierari (rebertsioa).

2.- Udal Batza Osoak, Plenoak, zerrenda osoa onartu eta jendaurreko agerraldi epea zabaldu gutxienez 30 egunekoa, kontuan izanik gaiaren garrantzia eta transzendentzia hiru hilabetera luza daiteke.(Adibidez Zarautz) eta GAO-ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gainera, gutxienez, lurraldean zabalkunde gehien duen egunkari batean.

Oharpenik ez badago zerrendak behin betiko izaera jasoko du, beste erabakiren beharrik gabe. Oharpenak baleude hauek ebatzi beharko dira.

3.- Panteoien titulartasun eskubideen TITULOAK eskubidedun guztiere banatu.

Zumaia 2.005ko otsailak 21

Idazkariak

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 E.A.J, 1 IZUSTARRI, 2 E.A,2 PSOE eta 1 EB/IU)

Aldeko botuak: 11.

ERABAKI DA

1.- Titulartasun eguneraketa dokumentua haserako izaeraz onartzea.

2.- Dokumentu honetatik eratorririko zerrenda jendaurreko agerraldi epean azaldu gutxienez 30 egunez, GAO-ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta, gutxienez, lurraldean zabalkunde gehien duen egunkari batean iragarkia argitaratuaz.

Oharpenik ez badago zerrendak behin betiko izaera jasoko du, beste erabakiren beharrik gabe. Oharpenak baleude hauek ebatzi beharko dira.

3.- Titulartasun eguneraketa dokumentuan eguneratu gabe gelditzen diren panteoi eskubideeri buruz Udalak errebertsioa, abandonoa edo hondamena aitortuko du kasuan kasu.

4.- Panteoien titulartasun eskubideen TITULOAK eskubidedun guztiere luzatu.

4.- ESKARI-GALDERAK.

Alkate Lehendakariak zinegotziren batek eskari galderarik luzatu nahi duen galdetzen du.

EB-BERDEAK Taldeko Cristina Forcadak eskari bat egin nahi duela adierazten du eta aktan jasota gera dadila, azkenengo Paolan bere alderdiaren iritziak aurrez berarekin harremanetan jarri gabe jaso zuen mozketak. Beti ere denbora eza eta presaren argudioa erabiliaz. Formak gordetzeko eskatzen dizuet. Eta bide batez aitortzen dut nire errua izan zela. Baina gutxienez iritzi artikulua moztu aurretik adierazi.

Bestalde nire taldearen izenean bi mozio aurkeztuak ditugula azaldu eta eskatu batzordean eztabaidatu daitezela eta hurrengo Osoko bilkurako gai zerrendan sartu daitezela.

EAJ-k zera erantzuten du, Udalean bost alderdi politiko daudela ordezkatuak, eta denen artean adostutako irizpideak jarraituz argitaratzen direla alderdien iritziak aldizkarian. EB-Berdeak, aurkeztu zuen iritzi artikulua, azken zatian botu eskaera luzatzen zuen datozen hauteskunde autonomikoetarako. Azpeitiako Huateskunde Batzordeari luzatu zitzaion kontsulta udal aldizkarian hori argitaratzearen legezkotasunaz eta beraien erantzuna ez zela bidezkoa izan zen. Beraz, EB-Berdeak, beraien harremanetan jartzeko eskatutako bidea erabiliz, hau da e-mail.ez, adierazi zitzaion zati hori kendu egingo zela, gai hori Plenokoa ez zelako eta hauteskunde Batzordearen aurkako erantzuna jaso genuelako.

Gaia luze eztabaidatzen da zera azpimarratuaz textuen lerro kopurua, errespetatu behar dela; textuaren gaia Plenoko, Udal gaia izan behar duela; aurrez, textua bidali duenari jakinarazi behar zaiola aldaketarik balego,

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andereak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak eta hamabost direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK